

## Euskal AEko biztanleen batez besteko errenta 60 eurotan gehitu da 2013 eta 2014 artean

**18 urte eta gehiagoko biztanleen %86,5ek (ia 1.570.000 pertsonak) jasotzen du errentaren bat**

Eustatek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin egindako Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika datuen arabera, 2014an, Euskal AEko 18 urte eta gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala 19.379 euro izan ziren, 2013an baino %0,3, 60 euro, gehiago.

Euskal AEko egoiliarren 2014ko guztizko errenta pertsonalaren %61,0 lanetik dator; 11.821 euro batez beste. Gainerakoa: %26,0 gizarte-transferentzia edo prestazioetatik, batez beste 5.042 euro; %4,6 jarduera ekonomikoetatik, batez beste 881 euro; %8,4 kapital-errentetatik, higidarritik zein higiezinetik, batez beste 1.635 euro.

2013koen aldean, jarduera ekonomikoen errentak ehuneko 0,4 puntuz gehitu dira; transferentzienak 0,2; kapital-errentak 0,4 gutxiago eta lan-errentak 0,3 gutxiago.

Ia 1.570.000 dira nolabaiteko errenta jasotzen duten 18 urteko eta gehiagoko biztanleak, %86,5. %13,5ek ez du inolako sarrerarik izan 2014an. Pertsonen %59,7ren errenta Euskal AEko batez bestekoaren azpitik da, errentarik gabekoak barne; %12,3k batez bestekoa halako bi jasotzen du, 38.750 euro pasatxo.

**1. taula. Batez besteko errenta pertsonala, motari jarraiki, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2014**

|                                                                  | Euskal AE     |               |               | Araba/Álava   |               |               | Bizkaia       |               |               | Gipuzkoa      |               |               |
|------------------------------------------------------------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
|                                                                  | Total         | Gizonak       | Emakumeak     | Total         | Gizonak       | Emakumeak     | Total         | Gizonak       | Emakumeak     | Total         | Gizonak       | Emakumeak     |
| <b>Errenta guztira</b>                                           | <b>19.379</b> | <b>24.417</b> | <b>14.711</b> | <b>19.346</b> | <b>24.112</b> | <b>14.761</b> | <b>19.082</b> | <b>24.265</b> | <b>14.375</b> | <b>19.880</b> | <b>24.802</b> | <b>15.249</b> |
| Lanaren errenta                                                  | 11.821        | 14.935        | 8.936         | 11.939        | 14.882        | 9.107         | 11.716        | 14.853        | 8.866         | 11.940        | 15.090        | 8.975         |
| Capital errenta                                                  | 1.635         | 1.793         | 1.488         | 1.462         | 1.624         | 1.305         | 1.555         | 1.674         | 1.446         | 1.844         | 2.062         | 1.641         |
| Jardueren errenta                                                | 881           | 1.234         | 554           | 818           | 1.124         | 524           | 868           | 1.237         | 532           | 931           | 1.280         | 603           |
| Transferentziak                                                  | 5.042         | 6.455         | 3.733         | 5.127         | 6.481         | 3.823         | 4.944         | 6.501         | 3.531         | 5.165         | 6.370         | 4.030         |
| <b>Errenta baliagarria</b>                                       | <b>16.235</b> | <b>20.182</b> | <b>12.578</b> | <b>16.343</b> | <b>20.092</b> | <b>12.735</b> | <b>16.003</b> | <b>20.068</b> | <b>12.310</b> | <b>16.567</b> | <b>20.406</b> | <b>12.954</b> |
| Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarraren estatistika |               |               |               |               |               |               |               |               |               |               |               |               |

### Emakumeen batez besteko errenta, 10.000 euro gutxiago gizonena baino

Errenta ez dago berdin banatuta gizon eta emakumeen artean. Euskal AEko gizonetako batez besteko 24.417 euroko guztizko errenta dute eta emakumetako 14.711; gizonetako 9.706 euro gehiago.

Gizonetako eta emakumetako errenta pertsonalen arteko alde nabarmenenak 65 eta 69 urte artean; gizonena, batez beste, 17.009 euro gehiago.

18 urteko eta gehiagoko errenta pertsonalik altuena 55 eta 59 urte bitartean lortzen da, batez beste 26.003 euro. Emakumeen batez besteko errentarik handiena 50 eta 54 urte artean (batez

besteko 19.434 euro) lortzen da; gizonena 55 eta 59 urte artean eta nabarmen handiagoa (33.116 euro).

Gipuzkoak du errenta pertsonalik altuena, 19.880 euro; Arabak, 19.346; Bizkaiak, 19.082. 2013koaren aldean, Gipuzkoan %0,7 gehitu da; Bizkaian %0,2; Araban %0,1 jaitsi.

Hiru lurralde historikoen hiriburuetakoa batez besteko errenta pertsonalak Euskal AEko batez bestekoaren gainetik daude. Lehenen Donostia dugu, 22.583 euro; Bilbon 19.761; Gasteizen 19.558.

### Familien batez besteko errenta 40.097 euro 2014an


Familien batez besteko errenta, 40.179 euro 2014an; familien erdiek 32.396tik beherakoa. Familia-errenta berau osatzen duten adin nagusikoen errentak batuz lortzen da. Gipuzkoak, pertsonen kasuan bezalaxe, familia-errenta altuena, 40.808 euro; Bizkaiak 40.136; Arabak 38.447. Euskal AEko familien batez besteko diru-sarrerak batez besteko errenta pertsonala 2,1 aldiz dira.

Euskal AEko familien batez besteko errenta %0,4 jaitsi da 2013tik 2014ra. Bizkaian %-0,6; Araban %-0,4; Gipuzkoan %-0,1 baino gutxiago.

Familien %61,9k Euskal AEko batez bestekoaren azpiko errentaren bat dute, edo errentarik ez. Familien %2,6k ez du inongo errentarik jaso 2014an. %9k, 78.700 familia pasak, batez bestekoa halako bi pasa jasotzen dute, 80.194 euro.

“Genero-arraila” bada familiaren diru-sarreretan. Jasotzaile nagusia gizona bada familien batez bestekoa 44.315 euro, eta erdibideko eta goiko geruzetan ibiltzen dira gehien bat; emakumea bada, 33.431 eta errenta-geruza baxuenetan.

### 1. grafikoa. Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE (%) . 2014



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

## **Donostiak familia-errentarik handiena hiriburuetan**

Donostiak familia-errentarik handiena, 46.358 euro; Bilbok 40.759, Gasteizek 38.432.

Eskualde mailan badira aldeak Euskal AE osatzen duten 20en artean. 8 Erkidegoko batez bestekoaren gainetik, Gorbeia inguruak, Araban (48.270 euro); Plentzia-Mungia, Bizkaian (47.341), Goierri Gipuzkoan (42.111) nabarmen. Gainerako 12 eskualdeen familia-errentak batez bestekoaren azpitik daude; nabarmentzen dira: Enkarterriak, Bizkaian (34.262); Bidasoa behekoa, Gipuzkoan (37.051); Errioxa, Araban (31.213) Euskal AEko baxuena.

---

### **Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEko Pertsonen eta familien errentaren estatistikari buruzko prentsa ohar gehiago*

*Euskal AEko Pertsonen eta familien errentaren estatistikari buruzko datu bankua*